

gin zen!

ak goia jo zuenetik

RRV-ren armiarma sarea

JOSE MARIA BLASCO. La Polla Records eta Barricadaren managerra izandakoa, berak sortu zituen RRV siglak (Euskal Rock Erradikala) 1983an. Etiketa bat zen, guztiak bezala eztabaidagarria, euskal rockaren leherketa hemen eta gure mugetatik kanpo ezagutzera emateko sortua.

SOÑUA. Iruñeko disketxea. Hainbat urtetan folk taldeak grabatzen ibili ondoren, rock taldeak grabatzeari ekin zion 80ko hamarkadaren hasieran, batez ere Marino Goñik bultzatuta. La Polla Records, Barricada, Hertzainak eta Kortaturen lehen lanak, besteak beste, jasota daude bere katalogoan. 1986an desagertu zen, zatiketa baten ondorioz. Halaber, aipatzekoa da Discos Suicidasek urte haietan egindako lana.

MUSKARIA. Euskal Herriko musika aldizkari mitikoa. Roge Blascok, Oscar Amezagak eta Pedro Mari Ezkorrak sortu zuten 1980ko urtarrilean. Lehenengo azalean Bob Dylan, Sid Vicious, Itoiz eta Haizea agertzen ziren. «Garai hartan gehien entzuten ziren klasikoak hemengoekin nahastu nahi genituen». *Muskaria*-k nazioarteko taldeei buruzko euskarazko artikulua lehen aldiz irakurtzeko aukera eman zuen.

MARTXA ETA BORROKA. HBk 1985ean indarrean jarritako kanpaina. Funtsezkoa izan zen rock erradikalaren arrakastan. Kontzertu ugari eta jendetsuak antolatu ziren. Zenbait talde eta sektoretatik oportunistatzat jo zuten, baina talde askok, nagusiak tartean, parte hartu zuten kanpainen.

GAZTETXEAK. Gazteek autogestionatutako lokalak zabaldu ziren, oztopo instituzionalak gaindituz. Taldeek jo ahal izateko azpiegitura garrantzitsua osatu zuten. Oñati, Andoain, Azkoitia, Hondarribia... aitzindariak izan ziren.

FANZINEAK. Modan jarri ziren. Gogoan ditugu *La herencia de los Munster* (Santurtzi), *Sintonia Cerebral* (Tolosa), *Resiste* (Bilbo), *Peste* (Andoain), *Alguno me mosquea* (Bilbo)...

IRRATI LIBREAK. Funtsezkoak euskal rockaren zabalkuntzan. Gasteizko Hala Bedi Irratiak zabaldu zuen bidea 1983an. Gero sortuko ziren Eguzki (Iruñea), Zintzilik (Errenteria), Kaka Flash (Azpeitia), Iluna, Tximua (Lasarte)...

aluzinatu nuen, oraindik ez zuten diskorik eta esan nion nere buruari: talde honek duen filosofiarekin apurtu egingo du».

Gregorio Galvezek Club 44 saioa aurkezten zuen Donostiako Herri Irratian. Kritiko bezala, taldeen lan musikalari epaitzea egokitu zitzaion, eta jarrera zorrotza hartu zuen. «Ni euren mezua edo jarrerarekin baino euren musikarekin izan nintzen kritikoa. Ni poperagoa nintzen». Horrek taldeekin arazo bat baino gehiago izatea ekarri zion, adibidez Zaramarekin. «Bai, esan nuen izena ondo zegoela egiten zutena hori zelako, zarama. Haserretu ziren eta su-etenik gabeko gerra agindu zidaten». Hala ere, zer esateko bazuen jendea bazegoela uste du, esaterako Muguruza anaiak, «aurrera jarraitu dute, eboluzionatu dute eta jende hori baliotsua da». Garai hartan, RRVz gain, pop eta beste estilo leunagoak jorratzen zituzten hainbat talde zeuden (Matrona Impudica, La Insidia, Vidas Ejemplares) baina ez zuten arrakastarik izan. Galvezek horrela ikusten du: «talde hauek Madrilgo mobidaren isla ziren, eta hemen Madrilgo usaina izatea pekatua da, baztertzen da». RRVk ordea, «kaleko gazteen kezka, Euskadiko gizarte errealitatearekin lotuak, bildu zituen era borrokalaria eta zuzen batean», eta horretan oinarritu zuen arrakasta, Galvezek iritziz.

Garai hartan ugari izan ziren sorturiko fanzineak, modan jarri ziren. Gustukoak zituzten taldeei buruzko informazio ezak bultzatu zituen **Igone Kiñoi** eta **Lourdes de Diego**, beste hainbat bezala, 16 urtekin *Alguno me mosquea* sortzera. «Niri ez zitzaidan iruditu inolako leherketa gertatu zenik. Normala iruditzen zitzaidan hura» diosku Igonek. Hamar urte pasa ondoren, Igonek uste du jendea aspertuta zegoela «ematen ziotenarekin, matxinada bat izan zen, zegoena nazkagarria baitzen». **One Herrerek Sintonia Cerebral** sortu zuen 1980an, 17 urte zituela. «Radio 3, irrati libreak entzuten nituen eta hortik atera zen fanzinearen ideia». Bere iritziz, zenbait komunikabideri esker sortu zen RRV.

Taldeei ez zitzaien inoiz gustatu etiketa hori. «Noski, mobida komertzial bat izan zen, gainera gure kasuan funtzionatzen ez zuena» dio Zabalak. «Musikalki



ere ez genuen ezer ikustekorik horrekin, zaku bat izan zen hemengo musika guztia saltzeko». BAP!! taldeak urte haietan hasi zuen ibilbidea. **Eneko** abeslariak azaldu digunez, taldea ez



1985. urtea Kortatamani arean urtea izan zen. Argazkian, Fermin Muguruza abeslari eta gitarra jolea, Zornotzan emandako kontzertu batean.



eta irrati libreak eta gaztetxeak ugaldtu egin ziren, rockarentzat espazio alternatiboak sortuz. El Garaje, Gaueko eta The End bezalako lokalak ere kontzertuak antolatzen hasi ziren. Armiarma sare bat antolatu zen RRVren inguruan.

«Zerbait gertatzea espero genuen»

«Denok zerbait gertatzea espero genuen, baina ez nik nuen espero horren indartsu iza-



tea, gailendu ninduen», azaldu digu **Roge Blasco** Muskariako buruak. «Printzipio sozialetan izugarriko bat-etortzea zegoen taldeen artean. Elkarrizketetan konturatzen nintzen Ebaristok (La Polla Records) Gasteizen esaten zidana eta Drogasek (Barricada) Iruñean edo Roberto Mosok (Zarama) esaten zidatena gauza bera zela. Ebaristo lehen aldiz elkarrizketatu nuenean,